ZUMARRAGAKO UDALA

Kanpoko eta barruko errotuluak, irudi korporatiboa eta web guneetan euskararen erabilera sustatzeko diru-laguntzen Oinarri Espezifikoak. BDNS (Identif.): 681088.

Diru-laguntza orokorrei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalean aurki daiteke. Diru-laguntzak (https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/681088).

1. *Xedea.*

Deialdi honen xedea da 2023. urtean bere establezimenduko kanpoko nahiz barruko errotulu finkoetan, irudi korporatiboan eta web guneetan euskararen erabilera bultzatuko dutenei diru-laguntzak emateko baldintzak arautzea, beti ere genero berdintasunaren printzipioak errespetatuz.

2. *Onuradunak.*

Oinarri hauen bidez arautzen diren diru-laguntzak, bere jarduera ekonomikoa Zumarragako udalerrian kokatuta dauden lokaletan egiten duten pertsona fisiko edo juridikoek eskatu ahal izango dituzte.

Diru-laguntza hauen aplikazio eremutik kanpo daude:

a) Edozein kasutan eta kasu guztietarako: 15 langiletik gorako enpresak edo entitateak.

b) Web guneen kasuan:

1. Web gune pertsonalak.

2. Edozein eratako edo mailatako irakaskuntza erakundeei lotutako guneak.

3. Eduki iraingarria edota pertsonen eskubideen aurkakoa dutenak.

4. Alderdi politiko eta sindikatuen web orriak.

5. Edukietara sartzeko edonolako mugakizuna jartzen dutenak edo zerbitzuaren trukean ordainketa eskatzen dutenak.

6. Irudi sexistak dituzten web orriak edo berdintasun printzipioa errespetatzen ez dutenak (emakumeen eta gizonezkoen eremu soziolaboralean).

3. *Eskabideak eta aurkezteko epea.*

Eskabidea edozein unetan aurkeztu ahal izango da, oinarri hauek Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu ondoren. Nolanahi ere, urteko diru-laguntzak banatu ahal izateko, urriaren 31 izango da urte horretako diru-laguntza eskariak aurkezteko azken eguna.

Eskaera eta dokumentazio osagarria Internet bidez aurkeztu beharko dira Zumarragako Udaleko egoitza elektronikoko diru-laguntzen ataritik (https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/7.00/Default.aspx?idayto=80&=&idioma=eu-ES) eta, salbuespen modura, paperean Udaleko Erregistro Orokorrean herritarrak hartzeko ordutegiaren barruan edo korreo zertifikatu bidez.

AYUNTAMIENTO DE ZUMARRAGA

Bases Específicas de concesión de subvenciones para impulsar el uso del euskera en la rotulación exterior e interior, imagen corporativa y página web. BDNS (Identif.): 681088.

De conformidad con lo previsto en los artículos 17.3.b y 20.8.a de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, se publica el extracto de la convocatoria cuyo texto completo puede consultarse en la Base de Datos Nacional de Subvenciones (https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/681088).

1. *Objeto.*

Es objeto de la presente convocatoria la regulación del acceso y concesión de subvenciones a entidades que, durante el ejercicio de 2023, impulsen el uso del euskera en los rótulos de sus sedes, su imagen corporativa o su página web, respetando los principios de igualdad de género.

2. *Entidades beneficiarias.*

Las subvenciones que se regulan a través de estas bases podrán ser solicitadas por aquellas personas físicas o jurídicas que desarrollen su actividad económica en locales ubicados en el municipio de Zumarraga.

Quedan excluidos del ámbito de aplicación del presente programa los siguientes supuestos:

a) En todo caso y para todos los supuestos: Empresas o entidades de más de 15 trabajadores.

b) Para los supuestos de sitios web:

1. Sitios web personales.

2. Sitios web ligados a entidades educativas de cualquier clase y nivel.

3. Webs con contenidos ofensivos o contrarios a los derechos de las personas.

4. Webs de partidos políticos y sindicatos.

5. Los que ponen algún tipo de límites a entrar en sus contenidos o los que solicitan un pago a favor de servicios prestados.

6. Sitios web que contengan imágenes sexistas o que no respeten el principio de igualdad (de mujeres y hombres en el ámbito socio laboral).

3. *Solicitudes y plazo de presentación.*

Las solicitudes podrán presentarse en cualquier momento, una vez se haya cumplido el objeto de las ayudas. De cualquier forma, para poder distribuir las ayudas anuales, la fecha límite para presentar la solicitud de subvención será el 31 de octubre.

La solicitud y la documentación complementaria deberán presentarse obligatoriamente vía Internet, a través del portal de subvenciones ubicado en la sede electrónica del Ayuntamiento de Zumarraga (https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/7.00/Default.aspx?idayto=80&=&idioma=es-ES), y excepcionalmente en papel mediante su entrega en el Registro General del Ayuntamiento, dentro de los horarios de atención al público, o por correo certificado.

EK\CV GAO-I-2023-01847

4. Ekarri beharreko agiriak.

Eskabidearekin batera, Zumarragako Udalak ezarrita dituen diru-laguntza programak arautzen dituzten Oinarri Arauetako 6. artikuluan zerrendatutako dokumentazioa aurkeztu beharko da (2023ko otsailaren 10eko Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 28. zb.).

Horren haritik, eta aipatu artikuluak jasotzen duen bezala, Zumarragako Udalak honako baldintza hauek egiaztatuko ditu ematen dituen dirulaguntzak eskuratu ahal izateko, Nisaeren, datuen elkarreragingarritasunerako plataforman:

— Pertsona eta/edo entitatearen nortasun-datuen kontsulta eta egiaztapena.

— Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela egiaztapena.

— Foru Ogasunekiko zerga betebeharrak egunean dituela egiaztapena.

Udalak berak zuzenean ofizioz jasoko ditu Zumarragako Udalaren zergen eta zehapenen ordainketan egunean egoteari buruzko datuak, baita udalerrian erroldatuta egotearen datuak ere.

Interesdunak Zumarragako Udala Nisae elkarreragingarritasunerako plataformatik beste Administrazio Publikoetan berak aurkeztu dituen datuak eskuratzeko aukerari uko egiteko eskubidea dauka (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 28.2 artikulua).

Kasu horretan, interesdunak ukatze horren arrazoiak justifikatu beharko lituzke eta dagozkion datuak edo dokumentuak aurkeztu (2016/679 (EB) Araudia, Datuen Babeserako 21. artikulua).

Deialdi honetako Oinarri Arauetan eskatzen diren agiriez gain, hauek dira eskatzaileak aurkeztu beharko dituen agiriak:

a) Dirulaguntzaren eskaera orria dagokion moduan beteta (Dirulaguntzen eskaera orria).

b) Bankuko kontu zenbakiaren ziurtagiria.

c) Beste diru-laguntzarik eskatu edo jaso izanaren aitortza (1. eranskina).

d) Zinpeko aitorpena, dirulaguntza edo laguntza publikoak jasotzeko aukera galtzearekin zigortuta ez dagoela edo horretarako gaitasunik ez duela esanez legezko debekuan sartuta ez dagoela (2. eranskina).

e) Errotuluen kasuetan: Errotuluaren izena jasotzen duen agiria edo argazkia.

f) Irudi korporatiboaren kasuetan: Entitateak egin eta argitaratu duen elementu bakoitzaren ale bat (ibilgailuaren errotulazioaren kasuan argazki bat).

g) Web guneen kasuetan: Web gunearen helbidea.

5. Erabakia.

Udaleko Hizkuntza Normalkuntza Departamentuak izapidetuko ditu eskabideak. Hizkuntza Normalkuntza teknikariak txostena egin eta Euskara, Hezkuntza eta Gazteria Zinegotzi Delegatuak hartuko du erabakia. Erabaki hori Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da jakinarazpen modura.

6. Eskabideak baloratzeko irizpideak.

Diru-laguntza jasotzeko, baldintza hauek baloratuko dira:

a) Edozein kasutan eta kasu guztietarako:

1. Testua zuzen egongo da idatzita euskaraz (eta gazteleraz).

4. Documentación a aportar.

Las solicitudes deberán ir acompañadas de la documentación establecida en el artículo 6 de las Bases Reguladoras de los Programas de Subvenciones establecidos por el Ayuntamiento de Zumarraga (Boletín Oficial de Gipuzkoa n.º 28 del 10 de febrero 2023).

En este sentido, y tal y como recoge el citado artículo, el Ayuntamiento de Zumarraga va a verificar los siguientes requisitos para acceder a las subvenciones que otorgue en las distintas convocatorias, desde la plataforma de interoperabilidad de datos Nisae:

— Consulta de datos de identidad de la persona y/o de la entidad.

— Consulta de estar al corriente de sus obligaciones frente a la Seguridad Social.

— Consulta de estar al corriente de sus obligaciones tributarias frente a las Haciendas Forales.

Los datos de estar al corriente del pago de tributos y sanciones con el Ayuntamiento de Zumarraga, así como los datos de empadronamiento en el municipio, serán recabados directamente de oficio por el propio Ayuntamiento.

La persona interesada tiene derecho a oponerse al acceso, a través de la plataforma de interoperabilidad Nisae, por parte del Ayuntamiento de Zumarraga a los datos que figuren en el resto de Administraciones Públicas (artículo 28.2 de la Ley 39/2015 del Procedimiento Administrativo).

En ese caso, el interesado deberá justificar las razones de su oposición y aportar los datos o documentos correspondientes (artículo 21 del Reglamento (UE) 2016/679 de Protección de Datos).

Además de la documentación requerida en las Bases Generales de la presente convocatoria, la persona solicitante deberá presentar la siguiente documentación:

a) Impreso de solicitud de subvención debidamente cumplimentado (Hoja solicitud de subvenciones).

b) Certificado del número de cuenta bancaria.

c) Declaración jurada de haber percibido o no alguna otra subvención por el mismo motivo (anexo 1)

d) Declaración jurada de no estar sancionada penal ni administrativamente con la pérdida de la posibilidad de obtención de subvenciones o ayudas públicas (anexo 2).

e) En los supuestos de rótulos: Documento o fotografía donde se recoge el nombre del rótulo.

f) En los supuestos de imagen corporativa: Un ejemplar de cada elemento elaborado y publicado por la entidad (en el caso de rotulación en vehículo una fotografía).

g) En los supuestos de sitios web: Dirección de la página web.

5. Resolución.

Las solicitudes serán tramitadas por el Departamento de Normalización Lingüística del Ayuntamiento. El técnico de Normalización Lingüística elaborará el informe técnico y la Concejal Delegada de Euskera, Educación y Juventud adoptará la resolución. Esa resolución se publicará en el Boletín Oficial de Gipuzkoa a efectos de notificación.

6. Criterios de valoración de las solicitudes.

Para la percepción de la subvención se valorarán los siguientes requisitos:

a) En todo caso y para todos los supuestos:

1. El texto deberá estar redactado correctamente en euskera (y en castellano).

EK\CV GAO-I-2023-01847

2. Diru-laguntza jaso behar duen ekintza iazko azaroaren 1etik aurtengo urriaren 31 bitartean egindakoa izango da.

3. Erabilitako edukietan hizkuntza eta irudi ez sexistak bermatzea.

b) Errotuluen eta irudi korporatiboaren kasuetan:

1. Ez da kontuan hartuko izen berezia, baizik eta langintza mota edo jarduera profesionalaren adierazlea.

2. Testu guztiek euskara hutsean edo elebietan izatea. Bi testu edo gehiago izanez gero –lehen jarritakoak zein berriak– denak batera eta osotasunean hartuko dira, eta denek euskara hutsean edo elebietan izan beharko dute.

3. Errotulua eta irudi korporatiboa elebidun denean, euskarazko testua, gutxienez, gaztelerazkoaren parekoa izan behar du neurriz eta edukiz.

4. Aurreko 3 urteetan produktu berdinagatik, edo moldaketa bategatik, diru-laguntza jaso ez izana.

c) Web guneen kasuan:

1. Zumarragan izatea helbide fiskala.

2. Web gunea euskaraz bakarrik edota euskaraz eta beste hizkuntza batzuetan egotea. Hainbat hizkuntzatan dagoenean, euskarazko testuaren portzentajea gainerako hizkuntzen antzekoa izango da eta, lehentasunez sarreran euskarazko hautapena egina egon beharko du.

7. Eman beharreko dirulaguntzen gehieneko zenbatekoa eta diru kopuru horren izaera.

1. Dirulaguntzen gehieneko zenbatekoa:

Programa honen bidez deitutako diru-laguntzen gehieneko zenbatekoa 6.000,00 € da, eta «137-0212.481.335-00.02 - Euskararen sustapenerako dirulaguntzak» diru-atalaren kontura finantzatuko da.

Horrekin, eskatzaile bakoitzari eman beharreko diru-laguntzak kalkulatzeko, honako irizpide hauek hartuko dira kontuan:

1.1. Errotuluen kasuetan: % 50ekoa izango da diru-laguntza, eta gehienez ere 300,00 €.

1.2. Irudi korporatiboaren kasuetan.

1.2.1. Kontzeptua: programa honetan aurreikusten diren diru-laguntzak aplikatzeko, irudi korporatiboaren elementutzat joko ditu Udalak:

— Gutun-azalak.

— Menbretedun orriak.

— Bisita txartelak.

— Entitatea identifikatzeko zigilua.

— Inprimakiak: albarana, faktura...

— Ibilgailuen errotulazioa.

— Produktuak biltzeko papera.

— Poltsak.

1.2.2. Zenbatekoa: % 50ekoa izango da diru-laguntza, eta gehienez ere 300,00 €.

1.3. Web guneen kasuetan: % 50ekoa izango da diru-laguntza, gehienez ere, 300,00 €.

2. Diru kopuru horren izaera:

Izaerari dagokionez, aurrekontuaren kopurua iritsiko ez balitz diru-laguntza jasotzeko eskubidea duten eskabide guztiak betetzeko, dagoen dirua urtean egon diren eskari guztien artean banatuko da proportzionalki, partida agortu arte.

2. La actividad objeto de la subvención deberá haber sido realizada entre el 1 de noviembre del año pasado y el 31 de octubre de este.

3. Garantizar el uso de lenguaje e imágenes no sexistas en el contenido.

b) Para los supuestos de rótulos e imagen corporativa:

1. No se tendrán en cuenta nombres propios, sino que contenga la actividad profesional o tipo de trabajo.

2. Todos los textos, tanto en rótulos como en imagen corporativa, deberán estar escritos exclusivamente en euskera o bilingüe. Si hay dos o más textos –tanto los que estén de antes como los nuevos– se tomarán todos como una unidad y todos deberán estar en euskera o bilingüe.

3. Cuando la rotulación o imagen corporativa sea bilingüe, el texto en euskera deberá ser como mínimo igual que el de castellano, tanto en tamaño como en contenido.

4. No haber recibido subvención en los 3 años anteriores por el mismo o similar producto.

c) En los supuestos de sitios web:

1. Tener el domicilio fiscal en Zumarraga.

2. Ofrecer el sitio Web únicamente en euskera o en euskera y otros idiomas. Cuando coexistan varios idiomas, el porcentaje del texto en euskera será igual o parecido al de los otros idiomas, y la página que aparezca como principal y a la que se acceda primeramente deberá estar en euskera.

7. Importe máximo subvenciones a conceder y carácter de dicha dotación.

1. Importe máximo subvención:

El importe máximo de las ayudas convocadas a través del presente programa asciende a la cantidad de 6.000,00 €, y será financiado con cargo a la partida presupuestaria «137-0212. 481.335-00.02 Subvenciones fomento euskera».

Con ello, para el cálculo de las subvenciones a conceder se tendrán en cuenta los siguientes criterios:

1.1. En el caso de los rótulos: la subvención será del 50 % del coste, con un límite máximo de 300,00 €.

1.2. En el caso de imagen corporativa.

1.2.1. Concepto: de cara a la aplicación de las ayudas previstas en el presente programa, el Ayuntamiento considerará como elementos de la imagen corporativa los siguientes:

— Sobres.

— Hojas con membrete.

— Tarjetas de visita.

— Sello identificativo de la entidad.

— Impresos: albaranes, facturas...

— Rotulación de vehículos.

— Papel para envolver productos.

— Bolsas.

1.2.2. Cuantía: será del 50 % del coste, con un límite máximo de 300,00 €.

1.3. En el caso de sitios Web: será del 50 % del coste, con un límite máximo de 300,00 €.

2. Carácter de dicha dotación.

En lo que al carácter se refiere, si la dotación presupuestaria no alcanzara a cubrir el total de solicitudes con derecho a ayuda, se procederá al reparto proporcional del dinero presupuestado entre todas las solicitudes presentadas en el año, hasta agotar la partida.

EK\CV GAO-I-2023-01847

Aipatutako kopurua gehitu ahal izango da, Udal Aurrekontuaren exekuzio oinarriek aurreikusten dutenaren arabera.

Horretaz gain, aldi berean beste laguntza batzuk jasotzeko aukera eta finantzaketa mugak Oinarri Arauetan zehaztuta daude.

8. Dirulaguntza ordaintzeko era eta epeak. Aurrerakinen aukera.

Udalak diru-laguntza ordainketa bakarrean egingo du, ez dago aurrerakinen aukerarik.

Eskaerak aurkezteko epea bukatu ondoren, urriaren 31 hain zuzen, Udalak hilabeteko epearen barruan hartuko du erabakia eta horrela jakinaraziko da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialaren bidez.

Jakinarazpena egin eta hilabeteko epearen barruan jasoko dute diru-laguntza onartutakoek.

9. Hasiera eta exekuzio epea eta dirulaguntza justifikatzeko epeak eta erak.

Dirulaguntza eskatzeko epea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita izango da urriaren 31 arte (nahiz eta diruz laguntzen diren ekintzan iazko azaroaren 1etik onartzen diren).

Dirulaguntza ordainketa bakarrean burutzen denez, eskaerarekin batera aurkezten den dokumentazioa (ikus Oinarri Arauen 6. artikulua) hartuko da justifikaziotzat.

10. Jakinarazpena.

Erabakien jakinarazpena, Oinarri Arauetako 11. artikuluan zehaztu bezala, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da eta banakako jakinarazpenak ordezkatuko du.

Zumarraga, 2023ko martxoaren 10a.—Mikel Serrano Aperribay, alkatea. (1847)

Dicha cantidad podrá ser objeto de ampliación, de conformidad con lo previsto en las Bases de Ejecución del Presupuesto Municipal.

Además de ello, la posibilidad de concurrencia con otras ayudas y límites de financiación están recocidas en las Bases Reguladoras.

8. Forma y plazos de abono de la subvención. Posibilidad de anticipos.

El Ayuntamiento realizará un único pago. No hay posibilidad de anticipo.

Terminado el plazo de presentación de solicitudes el 31 de octubre, el Ayuntamiento dispondrá de un mes para tomar la resolución y así se notificará mediante el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

Dentro del mes siguiente a la notificación se abonarán las subvenciones aprobadas.

9. Plazo de inicio y ejecución y forma de plazo de justifiación del destino de la subvención.

El plazo para presentar la solicitud será desde el siguiente a la publicación de estas bases en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, hasta el 31 de octubre (aunque el objeto de la subvención puede haber sido realizado desde el 1 de noviembre del año pasado).

La subvención será abonada en un solo pago, por lo que la documentación presentada como solicitud (ver artículo 6 Bases Generales) será tomada como justificación.

10. Notificación.

La notificación de la resolución se hará mediante el Boletín Oficial de Gipuzkoa de acuerdo con el artículo 11 de las Bases Reguladoras, y sustituirá a la notificación individualizada.

Zumarraga, a 10 de marzo de 2023.—El alcalde. Mikel Serrano Aperribay. (1847)

EK\CV GAO-I-2023-01847